

LEHENENGO ORDENANTZA FISKALA

KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKAPENENKO ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Udal honek Ordenantza Orokor honetara egokituko ditu bere zergak kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko egintzak.

2. artikulua.- Ordenantza hau aplikatuko da udalerrri osoan.

3. artikulua- Udal administrazioak kudeatu, bildu eta ikuskatuko ditu zergak, kalterik egin gabe Foru Aldundiaren edo Autonomia Erkidegoko Administrazioaren alde eman daitezkeen eskuordetzei eta, oro har, administrazio publikoekiko lankidetzaren formulari.

Era berean, udal administrazioak erabaki ahal izango du udalerrria sartuta dagoen elkarrekin eman ditzaketan zerbitzuak erabiltzea.

II. ZERGA KUDEAKETA

4. artikulua.- Zerga kudeaketa egingo da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 FORU ARAU OROKORRAREN III. tituluan ezarritakoaren arabera.

1 artikulua. Bizkaiko Lurralde Historikoko tributuak kudeatzeko Erregelamenduaren 112/2009 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, autolikidazio-erregimenak eskatzen dituen tributuen kasuan, horiek ordaindu behar dira likidatzeko eskabidea erregistratu aurretik.

5. artikulua.- Hobariak aplikatzea: tokiko zergak arautzen dituzten ordenantza fiskaletan adierazitako hobari bat baino gehiago aplikatzeko eskatuz gero, hobari horiek ezin izango dira aldi berean aplikatu, eta eskatzailearentzat onuragarriena den hobaria baino ez da aplikatuko.

6. artikulua.- Zerga biltzeko kudeaketaren efizientzia eta ekonomia irizpideengatik, salbuesita egongo dira kuota likidoa 10,00 €-tik gorakoa ez duten likidazioak. Salbuespen hori ez zaie aplikatuko administrazio agiriak emateagatik tasari dagozkion likidazioei, ez eta 10. eta 15. ordenantza fiskaletan, hurrenez hurren, araututako euskara irakaskuntzako, etxez etxeko laguntzako eta hirugarren adinekoentzako, kulturako eta kiroleko zerbitzuak emateagatik tasari ere.

III. BILKETA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

7. artikulua. Bilketa kudeaketa

1. Bilketa kudeaketa oinarritzen da zerga zorrak eta zehapenak eta Udalari ordaindu beharreko gainerako baliabide publikoak kobratzera bideratutako administrazio eginkizuna betetzean.
2. Ondorio horietarako, izaera publikoko kreditu guztiak zortzat hatuko dira, eta ordaintzera behartuta egongo dira udal ogasunak zor osoa edo zati bat ordaintzeko eskatzen dien pertsonak edo erakundeak.
3. Bilketa honela egin ahal izango da:
 - a) Borondatezko aldirian, obligaziodunak Zergen Foru Arau Orokorrean aurreikusitako epeetan ordainduta edo beteta.
 - b) Betearazpen aldirian, obligaziodunak bere kabuz ordainduta edo beteta, edo, halakorik ezean, premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez.

8. artikulua. Lege araubidea

Zerga zorren eta zehapenen eta gainerako baliabide publikoen bilketa Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera egingo da, Toki Ogasunei buruzko Foru Arauan aurreikusitako berezitasunekin, eta Udal Ordenantza honen arabera. Arau horretan aurreikusten ez den guztian, Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko emandako lege xedapenak aplikatuko dira, osagarri gisa; zehazki, abuztuaren 21eko 125/2019 Foru Dekretuak onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga bilketako Erregelamendua.

9. artikulua. Bilketa kudeaketarako organoak

1. Zerga zorren eta zehapenen eta gainerako baliabide publikoen bilketa Basauriko Udalak berak egingo du zuzenean, Zerga-Bilketa Atalaren bidez, hargatik eragotzi gabe diru bilketa betearazlearen arloko laguntza eta aholkularitza lan jakin batzuk horretarako kontratatutako kanpoko enpresek egin ahal izatea.
2. Zerga-Bilketa Atala, udal diruzaina buru duena, Basauriko Udaleko Ogasun, Ondare, Ekonomia Sustapen eta Merkataritza Arloaren barruan dago.

II. KAPITULUA. BILKETA KUDEAKETA. ARAU KOMUNAK

10. artikulua. Ordainketa aldiak

1. Zorrak borondatezko aldiak eta betearazpen aldiak bildu ahal izango dira.
2. Zorrak borondatez ordaintzeko epeak honako hauek izango dira:
 - a) Autolikidazio baten ondoriozkoen kasuan, zerga bakoitza arautzen duen udal ordenantzak ezartzen dituenak.
 - b) Administrazioak eginiko likidazio baten ondoriozkoak direnean, borondatez ordaintzeko epea hilabetekoa izango da, jakinarazpenaren egunetik kontatzen hasita.
 - c) Aldizkako kobrantzako eta jakinarazpen kolektiboko likidazioen kasuan, borondatezko epean ordaintzeko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta udaletxeko iragarki taulan jarriko den kobrantza iragarkian ezarritakoa izango da.
3. Borondatezko epean ordaintzeko ezarritako epea osorik ordaindu gabe amaitzen bada, automatikoki hasiko da ordaintzeke dagoen zatia ordaintzeko epea.
4. Betearazpen aldia hastean, betearazpen aldiko berandutze interesak eta errekaratuak eskatuko dira, eta, hala badagokio, premiamendu prozeduraren kostuak ere bai.
5. Bizkaiko aurrekontu araudiak ezarriko du berandutze interesa.
6. Betearazpen-aldia hastean berandutze-interesak sortzea ekarriko du, premiamendu-probidentzia jakinarazten den egunetik hilabeteko epea amaitu arte igarotako epean izan ezik, epe horretan sartutako kopuruengatik.
7. Errekargu betearazlea, ehuneko 5koa izango dena, automatikoki sortuko da, eta aldi betearazlea hastean eskatuko da.
8. Premiamendu probidentzia jakinaraztean, eta zerga zorra edo zergapekoa ez dena ordaintzeko hura jakinarazten denetik hilabeteko epea igarotzean, premiamendu errekaratua eskatuko da, ehuneko 20koa izango dena.
9. Zergapekoak ez diren zuzenbide publikoko diru sarreren bilketan aplikagarri den errekaratu eta interes araubidea zerga bilketan aplikatutakoaren berdina izango da, kudeaketa araudiak nahitaezko berezitasunak ezartzen dituenean izan ezik.

11. artikulua. Bilketa sistema

1. Udal zergen eta zuzenbide publikoko beste diru sarrera batzuen bilketa borondatezko epean egingo da, subjektu pasiboaren etxera igorritako dokumentu jakinarazpenean adieraziko diren erakunde laguntzaileen bidez. Dokumentu hori egokia eta nahikoa izango da sarrera erakunde laguntzaileetan egiteko.
2. Helbideratu gabeko zergen eta aldikazko prezio publikoen kasuan, jakinarazpena (ordainketa dokumentu gisa erabili ahal izango da) posta arruntez bidaliko da, jaso izanaren agiririk gabe, ez delako nahitaezko subjektu pasiboak jaso duela egiaztatzea.

3. Agiri horiek jasotzen ez badira, zergadunak Herritarren Arreta Bulegora jo ahal izango du, eta han dagokion kopia egingo da.
4. Aldizkako epemuga duten zergen kasuan, behin alta dagokion erregistroan jakinarazita, hurrengo kuotak kobrantza egutegian ezarritako epeetan ordaindu beharko dira, eta ordainketa agiria ez jasotzea ezingo da hartu premiamendu bidea hastearen aurkakotzat.
Ondorio horietarako, zerga xedearen beraren lehen sarrera hartuko da dagokion erregistroan eginiko altatzat.
5. Zorrak erakunde laguntzaile batean ordaindu ahal izango dira betearazpenaldian, zordunaren egoitzara bidaliko den agirian zehaztutako baldintza eta epeetan.

12. artikulua. Epeak kontatzea

1. Besterik adierazi ezean, epeak egunetan jartzen badira, egun baliodunak direla ulertuko da, eta ez dira kontuan hartuko larunbatak, igandeak eta jaiegunak.
Epeak egun naturalen arabera zehazten badira, horren berri emango da dagozkion jakinarazpenetan.
2. Egunetan adierazitako epeak dena delako egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuko dira, edo administrazio isiltasun bidez baietsi edo ezetsi eta hurrengo egunetik aurrera.
3. Hilabeteetan edo urteetan adierazitako epeak dena delako egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuko dira, edo administrazio isiltasun bidez baietsi edo ezetsi eta hurrengo egunetik aurrera. Mugaeguneko hilabeteetan ez badago kontaketa hasierako egunaren baliokiderik, epea hilaren azken egunean amaitzen dela ulertuko da.
Epea jakinarazpena, argitalpena edo administrazio isiltasuna gertatu den egunean bertan amaituko da, mugaegun hilabeteetan edo urteetan. Mugaeguneko hilabeteetan ez badago kontaketa hasierako egunaren baliokiderik, epea hilaren azken egunean amaitzen dela ulertuko da.
4. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera luzatuko da.
5. Interesduna bizi den udalerrian edo autonomia erkidegoan egun balioduna bada, eta Udalerri honetan baliogabea, edo alderantziz, baliogabetzat joko da beti. Aipatutako bigarren kasuan, mugaeguna hurrengo egun baliodunera aldatuko da interesdunak horren berri ematen dionean Administrazioari, dagokion egiaztapena egin ondoren.

13. artikulua. Egoitza fiskala

1. Egoitza fiskala da udal ogasunarekiko harremanetan ordaintzera behartuta dagoenaren kokalekua, eta araututa dago Zergei buruzko 2/2005 FA Orokorraren 47. artikuluan.
2. Zerga bilketaren ondorioetarako, oro har, eta ZFAOn araututakoaren arabera, egoitza fiskala honako hau izango da:
 - a) Pertsona fisikoen kasuan, haien ohiko bizilekua.
 - b) Pertsona juridikoen kasuan, haien helbide soziala.
3. Ordaintzera behartuta dagoenak beste helbide bat izenda dezake, norberarena edo ordezkari batena, bertan jasotzeko administrazio jakinarazpenak.
4. Nolanahi ere, ordaintzera behartuta daudenak behartuta daude beren helbidean izandako aldaketak aitortzera, bai eta udal ogasunetik igorritako komunikazioetan ikus ditzaketan okerrak adieraztera ere. Horretarako, berariazko adierazpena egin beharko dute, eta egoitza aldaketak ez du ondorio izango udal ogasunaren aurrean, harik eta adierazpen hori aurkezten den arte.
Beste administrazio ondorio batzuetarako (hala nola biztanleen errolda) helbide aldaketa adierazteak ez du ordeztzen egoitza fiskalaren aldaketaren berariazko adierazpena.
5. Udal Ogasunak ordainketa egin behar duenaren helbidea bere datu basean duenaren desberdina dela ikusten badu eta horren jakinarazpenik jasotzen ez badu, egoitza fiskala zuzendu ahal izango du dagokion egiaztapena egin ondoren, ordainketa egin behar duen bakoitzari lotutako kudeaketa elementu gisa txertatuta. Zerga bilketari loturiko jakinarazpen guztiak bidaltzeko helbidea izango da.
6. Balio osoa izango du, oro har, ordaintzera behartuta dagoenaren jardueraren egoitzan egindako jakinarazpenak, edo zerga izaerako edo izaera publikoko beste baliabide batzuei buruzko dokumentu batean jasotako azkenean eginikoak.

14. artikulua. Jakinarazpenak bilketa arloan.

1. Zergapekoari jakinarazpenak egiteko araubidea administrazio-arau orokorretan aurreikusitakoa izango da, ZFAOn eta Ordenantza honetan ezarritako berezitasunekin.
2. Jakinarazpenak bide telematikoetatik egingo dira, interesduna honako hauetako bat denean:
 - a) Pertsona juridikoa.
 - b) Nortasun juridikorik gabeko erakundea.
 - c) Jarduera profesional jakin bat egiteko nahitaez elkargoko kide izan behar dutenak, jarduera profesional horren baitan Udalarekin egiten dituzten izapideetarako eta jarduketetarako. Kolektibo horren barruan sartuko dira notarioak, jabetza-erregistratzaileak eta merkataritza-erregistratzaileak.
 - d) Administrazio Publiko bateko enplegatua, enplegatu publikoa izateagatik Udalarekin egiten dituen izapideetarako eta jarduketetarako.
3. Aurreko paragrafoan jaso ez diren kasuetarako, jakinarazpenak bide telematikoetatik egin ahal izango dira, baldin eta interesdunak berariaz baimendu badu hori egitea, eta bide telematikoak lehentasunezkoztat jo baditu.
4. Jakinarazpenak egiteko lekua:
 - a) Interesdunak eskatuta hasitako prozeduretan, zergapekoak edo haren ordezkariak horretarako adierazitako tokian egingo da jakinarazpena, edo, halakorik ezean, bataren edo bestearen egoitza fiskalean.
 - b) Ofizioz hasitako prozeduretan, jakinarazpena leku hauetan egin ahal izango da: zergapekoaren edo haren ordezkariaren egoitza fiskalean, lantokian, jarduera ekonomikoa garatzen den lekuan edo interesdunak edo haren ordezkariak jakinarazitako egintza jaso duela egiaztatzeak aukera ematen duen beste edozein lekutan.
5. Jakinarazpena jasotzeko legitimatuta dauden pertsonak:

Jakinarazpena zergapekoak edo haren ordezkariak horretarako adierazitako tokian edo bataren edo bestearen egoitza fiskalean egiten bada, eta entregatzeko unean bertan ez badago, toki edo egoitza horretan dagoen edozein pertsonak hartu ahal izango du, bere nortasuna jasota utziz gero, bai eta jakinarazpenetarako adierazitako lekuko edo zergapekoaren edo haren ordezkariaren egoitza fiskaleko auzokideen edo jabeen erkidegoko enplegatuek ere.

Jakinarazpena bide telematikoetatik egiten denean, zergapekoak edo haren ordezkariak bere gain hartu ahal izango du, bai eta zergapekoak edo haren ordezkariak hala adierazita aitortzen, autolikidazioak, eskaerak eta zergen ikuspuntutik garrantzitsuak diren bestelako dokumentuak bide telematikoetatik aurkezteko eta kontsultatzeko baimena duten pertsona fisikoek edo juridikoek ere.

Interesdunak edo haren ordezkariak jakinarazpenari uko egiten badio, jakinarazpena egindakotzat hartuko da legezko ondorio guztietarako.
6. Jakinarazpena agerraldi bidez:
 - a) Zergapekoari edo haren ordezkariari jakinarazpena egitea ezinezkoa bada Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, eta gutxienez bi aldiz saiatu bada jakinarazpena egiten egoitza fiskalean, edo interesdunak izendatutakoan, eta interesdunak eskatuta hasitako prozedura bada (nahikoa izanik saiakera bakar bat egitea hartzailea helbide eta toki horretan ezezaguna dela adierazten bada), dei egingo zaio zergapekoari edo haren ordezkariari, jakinarazpena egiteko agerraldi bidez, iragarkien bitartez (iragarki horiek Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, behin bakarrik interesdun bakoitzarentzat, hilaren 5ean eta 20an, edo, hala badagokio, hurrengo egun baliadunean). Hala ere, jakinarazpenak absentiagatik huts egindako bigarren saiakerarekin batera, jakinarazpena – ordainketa-gutuna utzi ahal izango da hartu izanaren agiririk gabe, zergapekoak horren berri izan dezan.
 - b) Argitalpenean honako hauek jasoko dira: egiteke dauden jakinarazpenen zerrenda, zergapekoa edo haren ordezkaria, jakinarazpen horiek eragiten dituen kontzeptua edo prozedura, izapidetzeko ardua duen organoa, eta agertzeko lekua eta epea. Elementu komunak dituzten egintzak argitaratzen direnean, batera argitaratuko dira bat datozen alderdiak, eta egintza bakoitzaren alderdi indibidualak bakarrik zehaztuko dira.

- c) Aurretik adierazitakoaren arabera egindako jarduketak espedientean jaso beharko dira, jakinarazpena egiteko izendatutako helbidean entregatzea eragotzi duen edozein zirkunstantziaz gainera.
 - d) Agerraldia hamabost egun naturaleko epean egin beharko da. Epea igaro eta agerraldirik egon ez bada, jakinarazpena adierazitako epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera egin dela ulertuko da, legezko ondorio guztietarako.
7. Jakinarazpena egitea:
- a) Posta Zerbitzuak, Udalaren jakinarazleak edo Udalak jakinarazpenen banaketa zerbitzu gisa kontratatu duen enpresako langileek entregatu ahal izango dute jakinarazpena.
 - b) Posta Zerbitzuak itzuli behar duen hartu-agirian, jakinarazleak edo jakinarazpen-enpresak honako hauek jaso beharko ditu: egindako jakinarazpenetarako, data, hartzailearen identifikazioa eta sinadura, eta jakinarazpena bere gain hartzen duen pertsonaren eta zergapekoaren arteko harremana (baldin eta ez bada jakinarazpenaren jasotzailea); jakinarazpenari uko eginez gero, edo jakinarazpena egin gabe geldituz gero, jakinarazpena egiten saiatu den eguna eta ordua eta jakinarazpen-saiakerari buruzko azalpenak jaso beharko dira.
8. Egin gabe gelditu diren nahitaezko jakinarazpenak: zergapekoari zuzenean jakinarazi behar zitzaion alta bat erroldan bidegabe sartu dela hautematen bada, eta zorra betearazpen-aldian badago, Udalaren diruzainak baliogabetu egingo du premiamendu-probidentzia, eta ez da ez errekar gurik ez interesik eskatuko, ez eta kosturik ere, Zergen Kudeaketa eta Ikuskaritza Sailak dagokion likidazioaren jakinarazpenik ez dagoela dioen eginbidea egin eta Zerga-Bilketa Atalak egiaztagiri gisa artxibatu ondoren.
9. Bilketaren kudeaketan efizientzia- eta ekonomia-irizpideei jarraitzeko, ez dira jakinaraziko bidegabeko sarreren itzulketak edo zorren konpentsazioak onartzen dituzten erabakiak, baldin eta zor osoaren zenbatekoa 10 eurotik beherakoa bada.

III. KAPITULUA ZORRA IRAUNGITZEA

15. artikulua. Zorra azkentzea

Zorrak modu hauetakoren baten bidez iraungi ahal izango dira: ordainketa, preskripzioa, kaudimen gabeziagatik behin-behineko baja, eta legezko xedapenetan aurreikusitako gainerako bitartekoak.

I. SEKZIOA. ORDAINKETA

16. artikulua. Ordainketaren legitimazioa, lekua eta modua

1.- Ordainketarako legitimazioa: ordainketa ordaintzera behartuta daudenen bidez egin daiteke, baita hirugarren pertsonen bidez ere, zorra iraungitzeko ondorio osoak edukita. Hala ere, zorra ordaindu duen hirugarrenak ezin izango dio administrazioari diru sarrera itzultzeko eskatu, non eta ez den izan bidegabeko diru sarrera bat, eta ez ditu ordaintzera behartuta daudenen beste eskubide batzuk erabiltzeko aukera izango, zuzenbide pribatuaren arabera bidezkoak diren errepikapen ekintzak alde batera utzita.

2.- Kobratzeko eskumena: zorrak diru bilketaren arloan lankidetzan aritzeko baimenduta dauden gordailu erakundeetan ordaindu beharko dira. Erakunde horien zerrenda ordaintzera behartuta daudenei bidalitako jakinarazpen-agirietan dago jasota.

Jasotzeko eskumenik ez duten organoei, erakundeei edo pertsoneri egindako ordainketek ez dute zorduna ordaintzeko betebeharretik liberatuko, hargatik bidegabeko jasotzailearen erantzukizun guztiak ezertan eragotzi gabe.

3.- Ordaintzeko modua: zorra eskudirutan ordainduko da. Salbuespenezko kasuetan, Administrazioak onartu ahal izango du zorra gauzatan ordaintzea, borondatezko epean edo epe betearazlean, edozein ondasun edo eskubide emanaz, udaleko diruzainak zehaztutako betekizunak eta baldintzak beteta.

Zorra eskudirutan ordaindu dela ulertuko da zenbatekoa ordaintzeko eskumena duten baimendutako erakunde laguntzaileetan sartu denean.

Ordainketak dagozkion ondorioak izan ditzan, zor osoa hartu behar du, haren zatikatzea onartu denean izan ezik. Zorra osorik ordaintzen ez bada, egindako ordainketa zorraren zati bati aplikatuko zaio. Borondatezko epean ordaindu ez diren zorrak epe betearazlean eskatuko dira, eta, hala badagokio, konturako ordainketa gisa zenbatuko dira epez kanpo ordaindutako kopuruak.

17. artikulua. Ordaintzeko epeak

- 1.- Zerga zorrak ordaintzeko epeak Zergen Foru Arau Orokorraren 60. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko dira.
- 2.- Ordainketa geroratzea edo zatikatzea onartu bada, Ordenantza honetan horrelako kasuetarako ezartzen den erregulazioa bete beharko da.
- 3.- Zergazkoak ez diren zorrak ordaindu beharko dira zor horiek eskatzeko arauetan zehaztutako epeetan, eta, halakorik izan ezean, ordenantza honetan xedatutakoa aplikatuko da.

18. artikulua. Ordaintzeko bitartekoak

- 1.- Ordainketa honako bitarteko hauetakoren bat erabiliz egin ahal izango da:
 - a) Erakunde kolaboratzaileak.
 - b) Helbideratzea, bankuan edo aurrezki kutxan.
 - c) Kontuan zorduntzeko agindua.
 - d) Kreditu txartela.
 - e) Bizum
 - f) Bankuko edo aurrezki kutxako transferentzia, Udalaren izenean horretarako irekitako kontuetan, Zerga Bilketa Atalak baimena eman ondoren.
 - g) Udalak baimendutako beste ordainketa modu bat.
- 2.- Eskudirutan ordaindu beharreko zor guztiak legezko diruarekin ordaindu ahal izango dira, albo batera utzita ordainketa jaso behar duen organoa edo erakundea, dirua biltzeko epea eta zorraren zenbatekoa.
- 3.- Diru bilketa banku erakunde eta aurrezki kutxa kolaboratzaileen bidez egingo da.

19. artikulua. Erakunde kolaboratzaileak

- 1.- Udal honek baimendutako gordailu erakundeek lagunduko dute diru bilketaren kudeaketan; eta erakunde horiek ez dira hartuko, inola ere, udal bilketaren organotzat. Erakunde kolaboratzailea izateko baimena alkateak onartu beharko du. Ondorio horietarako, diruzainak bere proposamena adieraziko du, baina alde zuzenetik baloratu egingo du banku erakundearen lankidetzaren eraginkortasuna aurreko ekitaldiko bilketa kanpainan.
 - 2.- Gordailu erakunde kolaboratzaileek honako eginkizun hauek izango dituzte:
 - a) Edozein pertsonak udal kredituak ordaintzeko emandako funtsak jasotzea eta zaintzea, betiere Udalak emandako agiria aurkezten bada eta ordainketa arauzko egunetan egiten bada.
 - b) Diru sarreretatik datozen funtsak zerga bilketako kontu mugatuan kokatzea, zergadunek eragiketarako egiten dituzten egun berean.
 - c) Horrelako diru sarreretakoko kutxa zerbitzuari eustea banku erakundearen lanegun guztietan.
 - d) Ordaindutako kreditua eta ordainketa data identifikatzeko aukera ematen duten datuak egunero ematea, euskarri informatiko egokien bidez, egun horretan bertan banku erakundearen sukurtsaletan bildutako zenbatekoari dagokionez.
 - e) Funtsak transferitzea Udalak erakunde laguntzailean irekitako kontu murriztura, lankidetzahitzarmenean ezarritako datetan..
 - e) Jarduera Alkateak Udal Diruzaintzaren bidez emandako jarraibideetara egokitzea. Jarraibide horiek jasota egongo dira baimen akordioan eta diru bilketa kudeatzeko lankidetzarako zerbitzua arautzeko oinarrietan.
- Gordailu erakundeak eta gainerako erakunde kolaboratzaileak ez dira hartuko, inola ere, udal bilketaren organotzat, baina horrek ez du eragotziko zergadunak udalak igorritako agiria ordaindu

ahal izatea, diru sarrera jaso duen erakunde kolaboratzaileak agiri hori behar bezala izapidetu ondoren.

3.- Ordainketa erakunde kolaboratzaileen bidez egiten denean, dirua sartu izanaren frogagiria entregatzean, zordunak ordainketa egintzat izango du agirian adierazitako egunetik aurrera. Une horretatik aurrera kreditu erakundea behartuta egongo da zenbateko hori ordaintzera, non eta ez den modu egiaztagarrian erakusten frogagirian agertzen den data edo zenbatekoa okerra dela.

20. artikulua. Helbideratzea, bankuan edo aurrezki kutxan.

1.- Ordaintzera behartuta daudenek zergen, prezio publikoen eta bestelako diru sarrera publikoen ordainketa helbideratu ahal izango dute, edozein finantza erakundetan.

2.- Helbideratu daitezke honako hauek:

- a) Aldizkako epemuga eta ordaintzera behartuta dauden guztiei jakinarazten zaizkien zergak —bat, batzuk edo guztiak—, eragina izanik eskaera egiteko unean dauden zerga objektuetan.
- b) Zerga likidazioak edo izaera publikoko beste diru sarrera mota bati lotutako likidazioak, Diru Bilketa Atalak kudeatutakoak, dagokion ebazpena jakinarazi ondoren.
- c) Administrazioak egindako edozein ordainketa errekerimendu, bilketa borondatezko epean edo epe betearazlean egin den albo batera utzita.
- d) Espediente betearazle bat, bertan jasotako zorren zenbateko osoari dagokiona, errenergua, interesak eta, hala badagokio, kostuak barne hartuta.

3.- Borondatezko epean aldizkako epemuga duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren zergei dagozkien ordainagiri helbideratuak helbideratze kontuan zordunduko dira, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako kobratze iragarkian adierazitako egunean.

Aldizkako kobrantzako eta jakinarazpen kolektiboko ordainagiriak epez kanpo aurkeztuz gero, aurkeztu eta hurrengo urtetik aurrera izango ditu ondorioak.

4.- Artikulu honetako 2. paragrafoaren b), c) eta d) letretan jasotako gainerako kasuetarako, zordunketa kontuan egingo da zehazten den maiztasunez.

5.- Banku helbideratze bidez egindako ordainketak helbideratze horien kontura egindako zordunketa datan egindakotzat hartuko dira, eta ordainketa helbideratuta dagoen erakundeak horretarako igortzen duen agiria ordainketaren frogagiriztat joko da.

6.- Helbideratutako ordainagiriaren kasuan, ordainketa agiria ez da zergadunaren helbidera igorriko; aukeran, zorraren datuak dagokion banku zordunketak sortutako euskarri magnetikoan sartuko dira, eta finantza erakundeak kontu zordunketaren egiaztagiria igorri beharko du.

7.- Helbideratzea eskatu ahal izango da:

- a) Udalaren erregistro nagusian.
- b) Zergadunaren bulego birtualean.

21. artikulua. Helbideratzea eskatzea, aldatzea edo ezeztatzea.

1.- Banku helbideratze bidezko ordainketek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Ordaintzeko betebeharra duena ordainketa helbideratzen duen kontuaren titularra izatea eta kontu hori kreditu-erakunde batean irekita egotea. Hala ere, ordainketa obligaziodunaren titulartasuneko ez den kontu batean helbideratu ahal izango da, betiere kontu horren titularrak helbideratzea baimentzen bada.
- b) Obligaziodunak helbideratze agindua administrazioari jakinaraztea, kasu bakoitzean ezarritako prozeduren arabera.

2.- Helbideratzeak balio mugagabea izango du, agindu emaileak hura baliogabetzen edo beste kontu edo erakunde batera lekualdatzen ez duen bitartean eta horren berri Udal Ogasunari ematen ez dion bitartean.

3.- Interesdunak berariaz baliogabetu ahal izango du helbideratzea edozein unetan, eta helbideratzeak ondorioak izateari utziko dio eskaera hori egin ondoren. Udalak ere helbideratzea baliogabetu ahal izango du, ordainagiria behin eta berriz itzultzen bada. Aldizkako epemuga duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren zergetan, helbideratze baten eteteak edo aldaketak ondorioak izango ditu, zordunketa data baino 5 egun lehenago egiten bada betiere.

4.- Ordaintzera behartuta dagoenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik helbideratutako ordainagiriaren kontu zordunketa egiten ez bada edo epez kanpo egiten bada, udal diruzainak premiamendu

probidentzia deuseztatuko du, eta ez da errekarurik eta interesik eskatuko, ezta kosturik ere, eta zorra borondatezko epean ordaintzeko egoerara atzeratuko da, Zerga Bilketa Atalak eginbidea egin ondoren, non helbideratzean izandako akatsaren berri emango baita helbideratzeen artxiboan egiaztapenak egin ondoren, edo Erakunde Kolaboratzaileak diru sarreran izandako atzerapena jakinaraziko baita. Zerga Bilketa Atalak eginbidea egiaztagiri gisa artxibatuko du.

Ez-betetzea ezingo zaio ordaintzera behartuta dagoenari egotzi, baldin eta helbideratze agindua kasu bakoitzean ezarritako prozeduraren eta epeen arabera egin badu.

5.- Udal ogasunak premiamendu bidez bilduko ditu ordaindu gabeko ordainagiri helbideratuak. Helbideratutako ordainagiriak behin eta berriz ordaintzen ez badira, helbideratzeari baja emango zaio, helbideratze bidezko ordainketa 4 urtez jarraian egin ez denean.

22. artikulua. OHZ eta EJZ helbideratzea

1.- Ordainketa helbideratuta duten Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren zorrei —aldizkako epemuga duten jakinarazpen kolektibokokak— borondatezko epean ordainketa automatikoa zatikatuko zaie, bi epetan. Zatikatzeko bakoitzean, zorra zenbatekoaren % 50 jaulkiko da, eta haren epemuga Aldizkari Ofizialean argitaratutako kobrantza iragarkian zehaztuko da; ez da berandutze interesik eskatuko. Ordainketa automatikoa zatikatu hori epemugan lehen zatia ordainketa betetzearen menpe geratuko da; bestela, hasiera emango zaio zorra osoari dagokion epe betearazleari.

Udalak ordainketa automatikoaren zatikatze hori ezarri ahal izango du helbideratutako ordainagiritarako, aurreko atalean aldizkako epemuga duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren beste zor batzuetarako ezarritako baldintza berberetan, betiere kobrantza iragarkian hala ezartzen badu.

23. artikulua. Banku transferentzia bidezko ordainketa.

1.- Udal kontu korronteren batera banku transferentzia bidez ordaintzea onartuko da, Zerga-Bilketa Atalak obligaziodunari hala jakinarazten dion kasuetan.

2.- Transferentziaren agindua zorraren zenbatekoarena izango da; administrazioaren errekerimenduan adierazitako erreferentzia zehatza adierazi beharko da, bai eta ordaintzera behartuta dagoenaren identifikazio zuzena ere, transferentziaren agindu emailearekin bat ez etorri arren.

3.- Ordaintzeko modu hori erabiltzeko dakartzan banku komisiok edo gastuak ordaintzera behartuta dagoenaren kargura izango dira beti.

4.- Ordaintzeko unetzat hartuko da dagokion zenbatekoa udaleko kontu korronteetan sartu den eguna, eta une horretatik aurrera ordaintzera behartuta dagoena libre geratuko da udal ogasunaren aurrean.

24. artikulua. Ordainagiria

1.- Zorra ordaintzen duenak egindako ordainketaren ziurtagiria jasotzeko eskubidea izango du. Eskudirutan ordaindu izanaren ziurtagiriak honako hauek izango dira:

a) Baimendutako bankuek eta aurrezki kutxek edo Zerga-Bilketa Atalak behar bezala balidatutako ordainketa gutunak.

b) Zorra ordaindu izanaren ziurtagiriak, Zerga-Bilketa Atalak behar bezala izapidetuta emandakoak.

c) Udalak berariaz ordainagiri gisa ematen dion beste edozein agiri.

2.- Zorren ordainketa justifikatzeko, lehen aipatutako agiri horietatik bidezkoa dena erakutsi behar da.

3.- Ordainagiritan, gutxienez, honako hauek adierazi beharko dira:

a) Zordunaren izen-abizenak edo sozietate izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia, halakorik badago, eta helbidea.

b) Kontzeptua, zorraren zenbatekoa eta dagokion aldia.

c) Ordainketa eguna.

d) Organo igorlea.

4.- Ordainagiriak bitarte mekanikoen bidez igortzen direnean, aurreko zenbakian adierazitako inguruabarrak, oro har, zorduna eta ordaindutako zorra identifikatzeko kodeak edo laburdurak erabili ahal izango dira.

5.- Diru Bilketa Atalak diru sarrera desegoki bat egin dela egiaztatzen duenean, sarrera hori ofizioz itzultzeari ekingo dio.

6.- Alderdi batek eskatuta bidegabeko diru-sarrerak itzultzeko prozeduretan, diru-bilketako datu-basean diru-sarrera hori jasota ez dagoenean, interesdunei eskatuko zaie itzultzeko eskaeran aipatzen dituzten diru-sarreraren ordainketaren jatorrizko dokumentuak aurkezteko, diru-sarrera horiek benetan egin direla eta subjektu pasiboa noiz eta zein erakundek kobratu eta identifikatu duen egiaztatzeke, eta aurreko itzulketa osoa edo partziala egin ez zaiela ziurtatzeko.

25. artikulua. Ordainketak egozte

1. Zorrek autonomoak dira. Hainbat zor ordaintzeko betebeharra duenak nahi bezala zehaztutako zorrari egotzi ahal izango dio ordainketa bakoitza, baldin eta zorra ez badago nahitaez betearazteko espediente batean sartuta; kasu horretan, 4. zenbakian xedatutakoa aplikatuko da.

2.- Geroko epemuga duen zordunketa bat kobratzeak ez du iraungiko Administrazioaren eskubidea kobratu ez dituen aurrekoak jasotzeko.

3.- Epe betearazlean dauden zorretarako, zorraren zenbateko osoa hartzen ez duen edozein zenbateko proportzionalki aplikatuko zaie zenbateko nagusiar, errekaruari, interesei eta kostuei. Nahitaezko betearazpeneko espedienteen kasuan, sartutako zenbatekoak ez badu espedientearen zenbateko osoa hartzen, lehenbizi espedientearen kostuei aplikatuko zaie, eta, gero, proportzionalki, nagusiar, errekaruari eta interesei.

4.- Nahitaezko betearazpenen eta ofizioz konpentsatzen direnen kasuan, ordaintzera behartuta dagoenak zor batzuk metatu baditu eta zor guztiak ordaindu ezin badira, Administrazioak, kreditu jakin batzuen hurrenkera ezartzen duten arauetan ezarritakoa eragotzi gabe, antzintasun handienetik txikienera ordenatutako zorrei aplikatuko die ordainketa, antzintasuna zehaztuta ordaintzeko borondatezko aldiaren epemugaren arabera. Hala ere, udal diruzainak, salbuespen gisa, ordainketa beste era batera aplikatu ahal izango du, berak zehaztuko dituen betekizunak eta baldintzak aintzat hartuta.

26. artikulua. Ordainketa kontsignatzea

Ordaintzera behartuta daudenek zorraren zenbatekoa eta, halakorik badago, egiaztatutako kostuak Udal Diruzaintzan kontsignatu ahal izango dituzte, horiek ezeztatzeke.

II. ATALA. ORDAINKETA GERORATZEA ETA ZATIKATZEA

27. artikulua. Ordainketa geroratzea eta zatikatzea. Irizpide orokorrak.

1. Zerga-zorren eta zuzenbide publikoko gainerako zorren ordainketa atzeratu edo zatitu ahal izango da Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 63. artikuluan eta ordenantza honetan aurreikusitako moduan.
2. Zorra geroratzea:
Honako hauek dira gerorapena onartzeko irizpide orokorrak:
 - a) Zergapekoak eskatuta zorrak geroratu ahal izango dira, baldin eta zorra borondatez ordaintzeko epean badago eta zenbateko nagusia 3.000 euro edo gehiago bada.
 - b) Epeei dagokienez, geroratzeko gehieneko epea 12 hilabete izango da.
 - c) Nolanahi ere, bermea aurkeztu beharko da, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.
3. Zorraren zatikapena berehala ematea:
Zatikapen bat berehala emateko irizpide orokorrak honako hauek dira:
 - a) Gutxienerako kuotaren zenbatekoak 10 euro edo gehiago izan behar du.
 - b) Zatikapenaren gehieneko epea taula honetan jaso da, zatikatu beharreko zorraren zenbateko nagusiaren arabera:

TARTEA	ZENBATEKOA	GEHIENEO EPEA
1. tartea	10,00 €-tik 200,00 €-ra	10 hilabete

2. tartea	200,01 €-tik 600,00 €-ra	18 hilabete
3. tartea	600,01 €-tik 1.500,00 €-ra	24 hilabete
4. tartea	1.500,01 €-tik 7.500,00 €-ra	36 hilabete

4. Zorraren zatikapena geroratuta ematea:
 - a) Zatikatu beharreko zorraren zenbateko nagusia 7.500 eurotik beherakoa denean, salbuespen gisa, eta zergapekoaren ordainketa-ahalmenaren eta zordundutako zenbatekoaren arabera, zatikapena beste era batean egin ahal izango da zorraren zenbatekoari, amortizazio-epeari eta zatikien zenbatekoei dagokienez, zorraren berehalako zatikapenarekin alderatuta.
 - b) Zatikatu beharreko zorraren zenbateko nagusia 7.500 eurotik gorakoa denean. Oro har, emakidaren gehieneko epea 48 hilabete izango da.
5. Ordaintzeko modua banku-helbideratzea izango da derrigor; zergapekoaren titulartasuneko ez den kontu batean helbideratu ahal izango da ordainketa, baldin eta kontu horren titularrak helbideratzea baimendu badu.
Epeak, oro har, dagokion hilabetearen 5ean edo 20an edo hurrengo egun balioudunean amaituko dira.
6. Geroratzeko edo zatikatzeko eskaera ebatzi aurretik, zorra ordaintzeko kontuan diru-sarrerak egin ahal izango dira, baina horrek ez du esan nahi geroratze edo zatikatze horri baiezkoa eman zaionik.
7. Zorrak zatikatu ahal izango dira, bai borondatezko aldian, bai betearazpen-aldian. Autolikidazioak ez dira zor zatikagarriak, ez eta deskontu-fasean dagoen beste edozein diru-sarrera ere, goiz ordaintzeagatik.
8. Zatikatzeko eskaera izapidetuko da baldin eta, eskatutako zorraz gain, zordunak betearazpen-aldian baliogabetu gabe dituen zor guztiak barne hartzen baditu.
9. Geroratutako edo zatikatutako zorraren epe bat borondatezko epean ordaintzen ez bada, ordaintzeko eskatuko da, eta, ordainketa hori egiten ez bada eta beste epe bat ordaintzen ez bada, emandako gerorapena edo zatikapena bertan behera geratuko da.
10. Ez da ordainketa geroratzerik edo zatikatzerik onartuko, baldin eta eskaera egin aurreko hamabi hilabeteetan aurreko geroratze edo zatikapen bat baliogabetu egin bada, ez betetzeagatik.
11. Zergadun bakoitzak gerorapen edo zatikapen aktibo bakarria izan dezake.

28. artikulua. Eskumena.

1. Ordainketak geroratzeko edo zatikatzeko eskaerak ebazteko eskumena norena den jakiteko, kontuan hartuko da bermea aurkeztu behar den ala ez, ordenantza honetan adierazitako baldintzak betetzeko.
2. Bermea aurkezteko betebeharra dagoenean:
 - a) Geroratzeko edo zatikatzeko eskaera Udalaren Erregistro Orokorrean egingo da.
 - b) Alkatearena izango da baimena emateko edo ukatzeko eskumena.
3. Bermea aurkezteko betebeharririk ez dagoenean:
 - a) Geroratzeko edo zatikatzeko eskaera Udalaren Erregistro Orokorrean edo Zergadunaren Bulego Birtualean egin ahal izango da.
 - b) Udalaren diruzainarena izango da baimena emateko edo ukatzeko eskumena.

29. artikulua. Eskaera.

1.- Ordaintzera behartuta dagoenak egingo du geroratzeko edo zatikatzeko eskaera, Udalaren Erregistro Orokorrean edo Zergadunaren Bulego Birtualean, aurreko artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

2.- Udal Diruzaintzak behar den guztia egingo du aurreko puntuan aipatutako eskaerak berriazko agiri batean egin daitezen. Agiri horretan, geroratzeak eta zatikatzeak onartzeko edo ukatzeko irizpideak adieraziko dira, bai eta diruzaintzako zailtasunak oinarritzeko beharra ere, hurrengo ataletan zehazten diren agiriak aurkeztuta.

3.- Geroratzeko edo zatikatzeko eskaerak honako hauek jasoko ditu nahitaez:

- a) Eskatzailearen izen-abizenak, sozietatearen izena, identifikazio fiskalaren zenbakia eta helbide fiskala, eta, hala badagokio, haren ordezkariarena, telefonoa eta, hala behar badu, posta elektronikoa.
- b) Zein zor geroratzeko edo zatikatzeko eskatzen den, Udal Administrazioak egindako ordainketa errekerimendua aurkeztuta, hala badagokio. Betearazpen aldian dagoen zor osoa jaso beharko du eskaerak.
- c) Eskatzen den gerorapenaren edo zatikapenaren epea edo kuota eta baldintzak.
- d) Eskaera egiteko arrazoiak.
- e) Eskaintzen den berme nahikoa, hala badagokio.
- f) Zein berme nahikoa eskaintzen den, ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu. Berme gisa onartuko da gordailu erakundeen abal solidarioa, zorraren zenbatekoa eta kalkulaturako berandutze interesak estaltzen dituen.
- g) Banku helbideratzearen agindua, finantza erakunde baten banku kontuaren zenbakia adierazita. Kontu horretan helbideratuko da ordainketa geroratuen edo zatikatuen kobrantza.
- h) Lekua, eguna eta eskatzailearen sinadura.

4.- Geroratzea edo zatikatzea berehala ematekoa ez denean, eskatzaileari honako dokumentazio hau aurkezteko eskatu ahal izango zaio:

- a) Pertsona fisikoek:
 - Ondasun nahikorik ez dutela adierazten duen adierazpena.
 - Erakunde ordaintzaileak behar bezala egiaztatutako nomina edo diru sarreren egiaztargiria.
 - Azken bi urteetako PFEZaren aitortpena.
 - Azken urteko banku mugimenduak.
 - Erroldatze ziurtagiria
- b) Pertsona juridikoek:
 - Ondasun nahikorik ez dutela adierazten duen adierazpena.
 - Azken hiru ekitaldietako urteko kontuak eta auditoretza txostena, halakorik badago.
 - Bideragarritasun plana, halakorik badago, eta ekonomia, finantza eta ondare mailan garrantzia duen beste edozein informazio, egokitzat jotzen bada eta eskatutako gerorapena betetzeko aukera justifikatzen badu.
 - Banku abala lortzea ezinezkoa dela egiaztatzen duten agiriak.

5.- Geroratzeko edo zatikatzeko eskaeraren ondorioak:

- a) Geroratzeko edo zatikatzeko eskaera borondatezko epealdian aurkezten bada, eta epealdi hori amaitzean eskaeraren gaineko erabakirik hartu ez bada, bertan behera geldituko da betearazpen aldiaren hasiera.
- b) Geroratzeko edo zatikatzeko eskaera betearazpen aldian aurkezten bada Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 60. artikulua 3. atalean ezarritako epea amaitu aurretik, ez da abiatuko zordunaren ondarearen aurkako exekuzioa, eta betearazlea izango da eska daitekeen errekargua.
- c) Geroratzeko edo zatikatzeko eskaera aurreko paragrafoan adierazitako epea amaitu ondoren aurkezten bada, premiamendu prozedura eten egingo da. Hala ere, eskaera egin aurretik izapidetutako enbargo agindu guztiek aurrera jarraituko dute eta dagozkien ondorioak izango dituzte. Geroratzea edo zatikatzea onartu bada, eta eskaera egin aurretik izapidetutako enbargo-aginduen ondorioz zorraren zenbatekoa murrizten bada, beste emakida bat igorriko zaio ofizioz zergadunari, ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoari eusteko eta amortizazio-aldia murrizteko.

30. artikulua. Bermeak.

1. Oro har, eskatzaileak kreditu erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen abal solidario gisa edo aseguru eta kauzio ziurtagiriaren bidez eskainiko du bermea. Jarritako bermeak balioa izan beharko du Udalak baliogabetzeko baimena ematen ez duen bitartean. Abal edo ziurtagiri hori lortzea ezinezkoa denean, eta horrekin enpresaren bideragarritasuna estutasun larrian jartzen bada, egokitzat jotzen duen beste edozein berme onartu ahal izango du Diruzainak.

2. Bermea formalizatzea: kontzesio akordioa jakinarazten denetik hasi eta hilabeteko epean formalizatu beharko da bermea, eta haren eraginkortasuna prestazioaren baldintzapean egongo da. Epe hori hiru hilabetera arte luzatu ahal izango du Udal Diruzainak, interesdunak arrazoituta eskaera egin ondoren, epe horretan formalizatzea eragozten duten arrazoiak daudela justifikatzen denean. Epe horiek igaro eta formalizatu ez bada, bertan behera geldituko da kontzesio akordioa.
3. Bermearen zenbatekoa: ordaintzeke dagoen kuotaren edo zehapenaren zenbatekoa estali beharko du bermeak, gehi bermearen 100eko 20, salbu eta premiamendu errekarua sorrarazi bada eta ordaintzeke dagoen zenbatekoa handiagoa bada. Kasu horretan, zenbateko hori eskatuko da, gehi 100eko 5 kostuengatik, eta, gainera, eska daitezkeen berandutza interes guztiak, bai eta ematen den gerorapenaren ere, hurrengo bi ataletan xedatutakoa izan ezik. Bermea kreditu erakundeen edo elkarren bermerako sozietateen abal solidarioa edo kauzio aseguruaren ziurtagiria bada, eta zorra borondatez ordaintzeko epean badago, bermatu beharreko zenbatekoa honako hau izango da: ordaintzeke dagoen kuota edo zehapena gehi zenbateko horren 100eko 5, betearazpen errekaru gisa, eta eska daitezkeen berandutza interes guztiak gehituko dira, ematen den gerorapenari dagozkionak barne, bi urteko mugarekin.
4. Zorra erabat ordaindu dela egiaztatzen denean kenduko da bermea.

31. artikulua. Bermeen galdagarritasun eza eta dispentsa.

1. Ordainketa geroratzea. Bermea aurkeztu beharko da beti.
2. Ordainketa zatikatzea. Ez da bermerik eskatuko honako kasu hauetan:
 - a) Zatikatu nahi den zorraren zenbatekoa 7.500 eurotik beherakoa denean.
 - b) Zatikatu nahi den zorraren zenbatekoa 7.500–15.000 euro denean, eta eskatutako gehieneko epea 12 hilabetetik beherakoa denean.
3. Udalaren diruzainak bermeak ematea salbuetsi ahal izango du, osorik edo zati batean, kasu bakoitzean ezarritako baldintzen arabera, baldin eta aurkeztutako aitortpenetik Administrazioak egiaztatu badu ez dagoela berme horiek emateko ondasunik edo eskubiderik, edo ondasun edo eskubide nahikorik.

32. artikulua. Ebazpena.

1. Geroratze edo zatikatze eskaerak gehienez ere bi hilabeteko epean ebatzi beharko dira. Epe hori luzatu egingo da akatsak zuzentzeko izapideak irauten duen bitartean, akatsik izanez gero. Gehieneko epea amaitutakoan ebazpenik eman ez bada, ezezkoa eman dela ulertuko da.
2. Geroratzeak edo zatikatzeak onartzeko ebazpenetan zehaztuko dira kasu bakoitzean haien eraginkortasuna baldintzatuko duten betekizunak. Ebazpenean jasoko dira epeak eta haien helbideratzeak ordaintzera behartuta dagoenak geroratze edo zatikatze eskaeran adierazitako banku kontuan. Epea hilabete bakoitzaren 5ean edo 20an edo hurrengo egun baliodunean amaituko da. Eskatutakoak ez bezalako epeak eta baldintzak adierazi ahal izango ditu ebazpenak.
3. Ebazpena ezezkoa bada eta ordaintzeko borondatezko epean geroratzea edo zatikatzea eskatu bada, zorra hamabost eguneko epean ordaindu beharko da, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita, dagozkion interesekin. Geroratzea edo zatikatzea exekuzio-aldia hasi ondoren eta premiamendu-probidentziaren jakinarazpenetik hilabeteko ezohiko epea igaro baino lehen eskatzen bada, jakinarazpena egiten denetik bost eguneko epea emango zaio zorra ordaindu ahal izateko, errekaru exekutibo barne, eta epe horretan ezin izango da premiamendu-errekarurik eskatu.
4. Onarpenaren edo ukapenaren jakinarazpena eskatzailearen helbide fiskalean edo hark jakinarazpena jasotzeko adierazitakoan egingo da. Hala ere, onartzen bada, onarpen hori eskaeran adierazitako epe berberekin egiten bada, eta zenbatekoak ez badira eskaeran adierazitakoak baino handiagoak, epeak kobratzen hasi ahal izango da helbideratze kontuan zordunduta, erabakia egiaz jakinarazten den eguna baino lehen.

33. artikulua. Aldez aurretik ezeztatzea.

- Onartutako gerorapena edo zatikapena, osorik edo zati batean, aldez aurretik ezeztatu ahal izango da:
- a) Zordunak eskatuta.

- b) Ofiziozko konpentsazio bidez, Administrazioak zergapeko horren alde onartutako edozein krediturekin, diru-sarrerak itzultzeagatik edo beste arrazoiren batengatik. Konpentsatutako zenbatekoa zorra kitatzeko erabiliko da, eta ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoa mantendu eta amortizazio-aldia murriztu egingo da.
- c) Kontu-korronteen enbargoen bidez atxikitako zenbatekoak aplikatzeagatik, enbargo-agindua ordainketa zatikatzeko eskaera baino lehenagokoa denean.

34. artikulua. Interesak.

- 1.- Geroratutako edo zatikatutako ordainketen zenbatekoek Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 26.3 artikuluan aipatzen den berandutze interesa sortuko dute.
- 2.- Geroratzea edo zatikatzea onartzen bada, interesak zor nagusiaren gainean kalkulatu dira, kasuan kasuko betearazpen aldiko erretegia, baldin bada, alde batera utzita, eta borondatezko aldia amaitzen denetik geroratzeko edo zati bakoitzerako diru sarrera egiteko emandako epea amaitu arte igarotako denbora zenbatuko da. Zati bakoitzak sortutako interesak zati horrekin batera ordaindu beharko dira, zati hori ordaintzeko epean.
- 3.- Borondatezko epean eskatutako geroratzea edo zatikatzea edo zorra ebazpena baino lehen ordaintzea ukatzen bada, interesak kalkulatu dira borondatezko epea amaitzen denetik ezezko ebazpenaren edo zorraren diru-sarreraren egunera arte igarotako aldiaren arabera.

35. artikulua. Geroratutako edo zatikatutako zenbatekoak ez ordaintzearen ondorioak.

- 1.- Gerorapenetan, emandako epea amaitu ondoren ordainketa egin ez bada: eskaera borondatezko epean aurkeztu bada, betearazpen aldia hasiko da, eta, eskaera betearazpen aldiaren aurkeztu bada, premiamenduzko prozedurari jarraituko zaio ordaintzeke dagoen zorra kobratzeko.
- 2.- Onartutako ordainketen zatikatzetan, epemugetakoren bat iritsi eta ordainketa egin ez bada, honela jokatu da:
 - a) Ordaindu gabeko zatirako eta epemugaren hurrengo egunetik aurrera sortutako interesetarako, beste kargu bat bidaliko da kontura, eta hurrengo bidalketa izango da haren epemuga, hilabete bakoitzaren 5ean edo 20an edo hurrengo egun baliadunean, eta interesdunari kontuko kargu abisuaren jakinarazpena bidaliko zaio, edo bestela, ordainketa gutuna bidaliko zaio, ordain dezan.
 - b) Ordaindu gabeko bi epe metatzen badira, mugaeguneratuzat joko dira ordaintzeko dauden zatiak, eta betearazpen aldia hasiko da edo premiamenduzko prozedurarekin jarraituko da, zatikatzea borondatezko aldiaren edo betearazpen aldiaren eskatu zen kontuan hartuta.
 - c) Geroratutako edo zatikatutako zorraren epemuga iritsi eta ordainketa egin ez bada, berriz kalkulatu dira berandutze interesak ordainketa egin arte, kalkulu oinarri gisa nagusia hartuta.

III. ATALA. PRESKRIPZIOA

36. artikulua. Zorren preskripzioa eta deuseztapena

1. Zerga zorrak ordaintzeko eskatzeko epea lau urtera preskribatuko da, borondatezko ordainketa epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.
2. Zergazkoak ez diren zor publikoen preskripzio epea zor horien kudeaketa arautzen duen araudi partikularraren arabera zehaztuko da. Zuzenbide publikoko baliabidea arautzen duen Legearen aurreikuspen zehatzik ez badago, Aurrekontu Legearen 15. artikuluan ezarritako lau urteko preskripzio epea aplikatuko da.
3. Preskripzio epea eten egingo da ondoko kasu hauetan:
 - a) Administrazioak edozein ekintza egiten duenean, ordaintzera behartuta dagoenari behar bezala jakinarazita, zerga zorra biltzeko asmoz.
 - b) Edozein motatako erreklamazio edo errekurtsio jartzen denean, zergapekoa jakinaren gainean egonik erreklamazio edo errekurtsio horien bidean egindako jarduerengatik, Kontzertu Ekonomikoan ezarritako Arbitraje Batzordean gatazka bat aurkezten denean, zordunaren parte hartzea aldarrikatzen denean edo zerga zorra kobratzeko diren jarduerak

zibil edo penalak daudenean, bai eta organo jurisdikzional batek komunikazio baten bidez bidean dagoen administrazio prozedura gelditzeko agintzen duenean ere.

- c) Ordaintzera behartuta dagoenak, edo beste batek haren izenean eta hura jakinaren gainean egonik, zorra onartu, ordaindu edo iraungitzen duenean.
4. Etenaldia gertatzen denean, berriro hasiko da preskripzioaren epea etenaldiaren egunetik aurrera zenbatuta, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean zehaztutako salbuespenekin. Preskripzio epea eten denean, ordaintzeko betebeharra duten guztiei eragingo die etenaldiak.
5. Preskripzioa ofizioz aplikatuko da, eta Diruzainak deklaratu du. Diruzainak espediente kolektiboa izapidetuko du aldizka, preskribatutako zor guztiei buruzkoa, zor horiek banaka preskribatu ez badira. Alkatetzak espediente hori onartu beharko du. Espediente hori kontu-hartzaitzak fiskalizatu ahal izango du. Preskribatutako zorrei baja emango zaie udal-kontabilitatean.

IV. ATALA. KONPENTSAZIOA

37. artikulua. Konpentsazioko arau orokorrak.

1. Konpentsazio bidez osorik edo zati batean iraungi ahal izango dira Udal Ogasunaren aldeko zorrak, baldin eta diru-bilketaren fasean badaude, bai borondatez, bai betearazpenez, Udal Ogasunak zordunaren alde onartutako kredituekin.
2. Konpentsazioa ofizioz edo zergapekoak eskatuta erabakiko da.
3. Konpentsazioa onartzeko eskumena duen organoa:
 - a) 1.000 eurotik beherako betearazpen-zorrak ofizioz konpentsatzeko eskumena Udalaren diruzainarena da.
 - b) Borondatezko zorrak edo 1.000 eurotik gorako betearazpen-zorrak ofizioz konpentsatzeko eskumena alkatearena da, bai eta zergapekoak eskatuta konpentsatzeko eskumena ere.

38. artikulua. Konpentsazioa, ordaintzera behartuta dagoenak eskatuta

1. Ordaintzera behartuta dagoenak bai borondatezko ordainketa aldia bai betearazpen aldia dauden zorrak bere alde aitortutako kredituekin konpentsatzeko eska dezake.
2. Konpentsazio eskaerak honako datu hauek bilduko ditu:
 - a) Ordaintzera behartuta dagoenaren izen-abizenak edo sozietatearen izen osoa, identifikazio fiskalaren zenbakia eta helbide fiskala, eta, hala badagokio, hura ordezkatzeko duenaren izena.
 - b) Konpentsatu nahi den zorraren identifikazioa, gutxienez zenbatekoa, kontzeptua eta borondatezko aldia ordaintzeko epearen mugaeguna adierazita.
 - c) Udal Ogasunak eskatzailearen alde aitortutako kredituaren identifikazioa, konpentsatzeko eskaintzen dena, haren zenbatekoa eta kontzeptua adierazita. Zorrak eta kredituak zordun berarenak izan behar dute.
 - d) Kreditua ez zaiola beste pertsona bati eskualdatu, laga edo endosatu egiaztatzen duen berariazko adierazpena.
 - e) Lekua, data eta interesdunaren sinadura.
3. Borondatezko aldia konpentsazio eskaera bat aurkezten bada, ezin izango da abian jarri zorraren betearazpen aldia hura tramitatzen den bitartean aitortutako kredituarekin batera. Horrek ez du eragotziko, hala badagokio, kreditua aitortzen den egunera arte edo, hala badagokio, ukatzeko ebazpena eman arte bidezkoak diren berandutze interesak sortzea.
4. Zorra iraungiko da eskaera aurkezten den unean edo zorretarako eta kredituetarako eskatzen diren baldintzak betetzen direnean, une hori eskaera aurkeztu ondorengoa bada. Konpentsazio akordioak deklaratu du iraungitze hori.

39. artikulua. Ofizioz konpentsatzea

1. Zerga administrazioak ofizioz konpentsatuko ditu betearazpen aldia dauden zerga zorrak eta zuzenbide publikoko gainerako zorrak.
2. Halaber, ofizioz konpentsatuko dira borondatezko aldia ordaintzeko epean:

- a) Egiatzapen mugatuko edo ikuskapeneko prozedura beraren ondorioz edo aurreko likidazio bat baliogabetzeagatik beste likidazio bat egiteagatik ordaindu eta itzuli beharreko zenbatekoak.
 - b) Berraztertzeko errekursoaren ebazpena betearaztearen ondorioz ordaindu eta itzuli beharreko zenbatekoak. Ebazpen hori ofizioz gauzatuko da, eta zordunari jakinaraziko zaio.
3. Ofizioz konpentsatu ahal izango dira, borondatezko aldian ordaintzeko epea igaro ondoren, zuzenbide publikoko erakundeek Udal honekin dituzten zor mugaeguneratuak, zor likidoak eta zor galdagarriak.
 4. Kredituak eta zorrak, zor hori borondatezko aldian egonda ere, zerga xede eta zergaldi berekoak badira, Administrazioak ofizioz konpentsatu ahal izango ditu bat datorren zenbatekoan, eta hortik sor daitekeen aldea erreklamatu edo itzuli egingo da, harik eta kredituaren titularrak berariaz baimentzen badu, eta baimen horretan jasoko da ez duela itzultzeko eskatuko bidezkoa ez den diru sarreragatik.
 5. Artikulu honetan araututako ofiziozko konpentsazioa egiteko, ordainketa egin aurretik hirugarren bati aitortutako betebeharrak dagoen bakoitzean, Diruzaintza Atalak kontsultatuko du hirugarren horrek betearazpen aldian zorrik ote duen edo zuzenbide publikoko erakundea den; kasu horretan, Diru Bilketa Atalari helaraziko dio, konpentsazio espedientea izapidetu dezan.
 6. Zorra iraungiko da betearazpen aldia hasten den unean edo zorretarako eta kredituetarako eskatzen diren baldintzak betetzen direnean, une hori eskaera aurkeztu ondorengoa bada. Konpentsazio akordioak iraungitze hori deklaratu du. Artikulu honen 2. atalean aurreikusitako kasuan, zorrak eta kredituak bat egiten duten unean gertatuko da iraungipena.

40. artikulua. Erakunde publikoen zorrak

1. Udalaren aldeko zorrak, kreditu mugaeguneratu, likido eta galdagarriengatik, zorduna lurralde erakundea, erakunde autonomoa, Gizarte Segurantzaren edo zuzenbide publikoko erakundea denean, eta haren jardura ordenamendu pribatuak arautzen ez duenean, ofizioz konpentsatu ahal izango dira, borondatez ordaintzeko epea igaro ondoren.
2. Konpentsazioa ezin bada aplikatu erakunde publikoen zorrak iraungitzeko bitarteko gisa, erakunde horiek Udalaren kontrako krediturik ez dutelako, Diruzainak erakunde zordunaren Kontu Hartzailtzari eskatuko dio Udalari ordaintzeko betebeharrak aitortu zaiola egiaztatzen duen ziurtagiria. Diru Bilketa Ataleko buruak udal Diruzainari helaraziko dio espedientea, bere ikerketen ondorioz bildu duen dokumentazioarekin. Zorren izaera, zordunarena eta espedientearen izapidetzearen garapena aztertu ondoren, Diruzainak jardura proposamena egingo du. Honako hauetakoren bat izan daiteke jardura proposamen hori:
 - a) Estatuko Administrazioari edo Administrazio Autonomikoari eskatzea zorren zenbateko bereko atxikipena aplikatu dadila eta Udalaren esku jar dadila, erakunde zordunaren alde agintzen diren transferentzien kontura.
 - b) Foru Ogasunaren lankidetzaren eskatzea zorrak egikaritzeko.
 Aurreko puntuan aipatutako jardueretatik kreditu egikaritzarik ez badator, ikertu egingo da ondare ondasunak dauden ala ez, behar izanez gero haiek enbargatzeko agintzeko. Hala badagokio, egin beharreko jarduerak Alkateak onartuko ditu, Diruzainak proposatuta, eta haiek ebatzita, jakinarazpen formala egingo zaio erakunde zordunari.

41. artikulua. Konpentsazioaren ondorioak.

1. Konpentsazioa adostu ondoren, zorrak eta kredituak zenbateko konkurrentearen arabera joko dira iraungitzat.
2. Zuzenbide publikoko erakundeek zorren konpentsazioen kasuan, kreditua zorra baino txikiagoa bada, kreditua gainditzen duen zor zatiarekin konpentsazioak adostuko dira ondoren erakunde horien alde aitortzen diren kredituekin.
3. Gainerako kasuetan, kreditua zorra baino txikiagoa bada, kreditua gainditzen duen zorren zatia biltzeko prozedura jarraituko da.
4. Kreditua zorra baino handiagoa baldin bada, konpentsazioa hitzartu ondoren, aldea ordainduko zaio interesdunari.

5. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera, Administrazioak zorra iraungi izanaren egiaztagiria eman ahal izango dio interesdunari, konpentsatutako kreditua iraungitzat jotzeko erabakia hartu behar du, eta dagozkion kontabilitate eragiketak egin behar ditu.

V. ATALA. ZORDUN KOBRAEZINAK ETA KREDITU KOBRAEZINAK

42. artikulua. Zordun kobraezina eta kreditu kobraezina.

1. Ordaintzera behartutakoak kobraezintzat joko dira zergak biltzeko administrazio prozeduretan ezin izan bada haien zerga zorra ordaindu, haien kaudimengabezia frogatzen baldin bada.
2. Hartzekodunen konkurtsoan deklaraturako ordaintzera behartutakoak kobraezinak deklaratzera erabakiko da, bertan jasotako datuak eta egindako jarduketak ikusita.

43. artikulua. Prozedura.

1. Diru Bilketa Atalak, Diruzainaren zuzendaritzapean, zuzenean edo beste udal organo batzuen bidez, partikularrei edo beste erakunde batzuei buruz egin beharreko informazio jarduerak egin beharko ditu, zerga kredituak eta zuzenbide publikoko gainerako kredituak egikaritzeko. Jarduera horiek espedientean jasoko dira, zordun nagusiek eta erantzule solidarioek enbargatu edo egikaritu daitezkeen ondasunik edo eskubiderik ez dutela frogatzeko, eta kobraezin deklaratzeko. Udal Diruzainak egingo du kobraezin deklarazioa.
2. Zordun nagusiak eta erantzule solidarioak kobraezintzat jo ondoren, erantzule subsidiarioak dauden ikertuko da. Erantzule subsidiariorik ez badago, edo haiek kobraezinak badira, kreditua kobraezintzat joko da. Kreditu kobraezinaren adierazpenaren ondorioetarako, Diru Bilketa Ataleko buruak espedienteak behar bezala dokumentatuko ditu eta Diruzainari bidaliko dizkio, kredituei baja emateko behin-behineko proposamena egin dezan, ordaintzera behartuta daudenen kaudimengabeziagatik edo hartzekodunen konkurtso deklarazioagatik, eta Alkatetzaren Dekretu bidez onartu izateagatik. Kontu hartzaileak fiskalizatu ahal izango du baja proposamen hori.

44. artikulua. Kreditu kobraezina deklaratzearen ondorioak.

1. Kreditu kobraezinaren deklarazioak ez du zorra berehala iraungitzen, kontuetan behin-behineko baja ematea besterik ez da dagozkion kredituen kaudimengabeziagatik. Kobraezintzat jotze horrek ez du eragozten legeen arabera egikaritu daitezkeen ekintzak dagokionaren aurka egikaritzea, harik eta Administrazioak ordainketa eskatzeko duen eskubidea preskribatu arte.
2. Diru Bilketa Atalak zaindu egingo du kobraezintzat jotako obligaziodunek eta erantzuleek gerora izan dezaketen kaudimena, Diruzainak horretarako adierazitako jarduerak eginda. Horretarako, Diruzainak administrazio zirkuituak antolatuko ditu, udal informazio garrantzitsua unean-unean eskuratzeko eta ezagutzeko. Inguruabar hori gertatzen bada, eta zorrak preskribatu ez badira, kobratu gabeko kredituak birgaituko dira. Diru Bilketako buruak zordunak kaudimena baduela jakingo balu, Diruzainari jakinaraziko dio, eta hark kobratu gabeko kreditua birgaitzea proposatuko du, Alkatetzaren dekretu bidez onar dadin.
3. Zorra behin betiko iraungita geldituko da preskripzio epealdian birgaitu ez bada.
4. Ordaintzera behartuta dagoen bat kobraezintzat jotzen bada, haren aurkako kredituak mugaeguneratutzat joko dira, deklarazioaren eguna baino geroagoko mugaeguna badute, eta baja emango zaie deklarazio hori dela eta, baldin eta beste obligaziodun edo erantzulerik ez badago.
5. Zordun kobraezinen deklarazioa, Merkataritzako Erregistroan inskribaturako pertsona fisikoen edo juridikoen kasuan, Erregistroan idatz oharra egiteko aginduaren bidez jakinarazi ahal izango da. Agindu hori udal Diruzainak emango du, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Erregelamenduaren 47. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Erregistro honek Diru Bilketa Atalari jakinarazi beharko dio erakunde zordunari buruz inskribatzeko aurkezten den edozein egintza, kobraezintzat jotako kredituak birgaitu ahal izateko.

45. artikulua. Kreditu kobraezina deklaratzearen justifikazioa.

1.- Prozeduraren legezketasunaren printzipioaren errespetua eta eskura dauden baliabideen erabilera eraginkortasun administratiboaren printzipioa uztartzeko kontuan hartu beharko diren jarduerak zehaztuko dira ondoren. Jarduera horiek aintzat hartu behar dira kreditu kobraezinaren deklarazioa justifikatzeko, eta behar bezala dokumentatuak egon beharko dute dagozkien espediente betearazleetan. Baldintza horiek kreditu kobraezinak deklaratzeko proposamena egin aurretik egiaztatu beharko dira.

2.- Justifikatzeko dokumentazioa desberdina izango da zorraren zenbatekoen arabera. Honako kasu hauek bereiziko dira:

2.1.- 300 eurotik beherako zor metatuen espedienteak.

- a) Premiamenduzko probidentzia aldeztatik jakinaraztea, baloreetan agertzen diren helbide guztietan, zergadunen datu basean agertzen den helbidean eta Biztanleen Erroldan agertzen den helbidean jakinarazpen saiakerak eginda, eta, hala badagokio, BAOn iragarkia argitaratuta, agerraldi bidez jakinarazteko.
- b) Egiaztatu beharko da funtsak enbargatzeko saioak egin direla hainbat banku erakundetan eta ezinezkoa izan dela.

2.2.- 300 eta 1.000 euro arteko zor metatuen espedienteak.

- a) Premiamenduzko probidentzia aldeztatik jakinaraztea, baloreetan agertzen diren helbide guztietan, zergadunen datu basean agertzen den helbidean eta Biztanleen Erroldan agertzen den helbidean jakinarazpen saiakerak eginda, eta, hala badagokio, BAOn iragarkia argitaratuta, agerraldi bidez jakinarazteko.
- b) IFZ izanda, egiaztatu beharko da funtsak enbargatzeko saioak egin direla hainbat banku erakundetan eta ezinezkoa izan dela.
- c) Zordunaren IFZrik ez izanez gero, egiaztatu beharko da udalaren datu baseetan kontsultak egin direla zorra kobratzeko.
- d) Egiaztatu beharko da Bizkaiko Foru Ogasunak erabakitako zerga itzulketak enbargatzen saiatu direla eta emaitza negatiboa izan dela.
- e) Egiaztatu beharko da soldatak, lansariak eta pentsioak enbargatzeko saioak egin direla eta emaitza negatiboa izan dela.

2.3.- 1.000 eurotik gorako zor metatuen espedienteak, pertsona fisikoen izenean ageri direnak:

- a) Premiamenduzko probidentzia aldeztatik jakinaraztea, baloreetan agertzen diren helbide guztietan, zergadunen datu basean agertzen den helbidean eta Biztanleen Erroldan agertzen den helbidean jakinarazpen saiakerak eginda, eta, hala badagokio, BAOn iragarkia argitaratuta, agerraldi bidez jakinarazteko.
- b) IFZ izanda, egiaztatu beharko da funtsak enbargatzeko saioak egin direla hainbat banku erakundetan eta ezinezkoa izan dela.
- c) Zordunaren IFZrik ez izanez gero, egiaztatu beharko da udalaren datu baseetan eta beste datu base batzuetan kontsultak egin direla zorra kobratzeko.
- d) Egiaztatu beharko da Bizkaiko Foru Ogasunak erabakitako zerga itzulketak enbargatzen saiatu direla eta emaitza negatiboa izan dela.
- e) Egiaztatu beharko da soldatak, lansariak eta pentsioak enbargatzeko saioak egin direla eta emaitza negatiboa izan dela.
- f) Egiaztatu beharko da zordunaren izenean ez dagoela ondasunik inskribatuta Jabetza Erregistroko Indize Zerbitzu Zentralean eta beste erregistro publiko batzuetan.

2.4.- 1.000 eurotik gorako zor metatuen espedienteak, pertsona juridikoen izenean ageri direnak:

- a) Premiamenduzko probidentzia aldeztatik jakinaraztea, baloreetan agertzen diren helbide guztietan, zergadunen datu basean agertzen den helbidean eta Biztanleen Erroldan agertzen den helbidean jakinarazpen saiakerak eginda, eta, hala badagokio, BAOn iragarkia argitaratuta, agerraldi bidez jakinarazteko.
- b) IFZ izanda, egiaztatu beharko da funtsak enbargatzeko saioak egin direla hainbat banku erakundetan eta ezinezkoa izan dela.
- c) Zordunaren IFZrik ez izanez gero, egiaztatu beharko da udalaren datu baseetan eta beste datu base batzuetan kontsultak egin direla zorra kobratzeko.
- d) Egiaztatu beharko da Bizkaiko Foru Ogasunak erabakitako zerga itzulketak enbargatzen saiatu direla eta emaitza negatiboa izan dela.

- e) Egiaztatu beharko da zordunaren izenean ez dagoela ondasunik inskribatuta Jabetza Erregistroko Indize Zerbitzu Zentralean eta beste erregistro publiko batzuetan.
- f) Merkataritza Erregistroak emandako informazioa aurkeztu beharko da.

3.- Zirkulazio isunei dagozkien betearazpen espedienteetan kreditu kobraezinen espedienteak izapidetzean, enbargo mota desberdinen emaitza negatiboa justifikatzen duen dokumentazioa desberdina izango da zorraren zenbatekoaren arabera. Honako kasu hauek bereiziko dira:

3.1. Zorraren zenbatekoa 1.000 eurokoa edo txikiagoa bada: hainbat banku erakundetan funtsak enbargatzeko saioak ez du emaitzarik izan.

3.2. Espediente horien zorraren zenbatekoa 1.000 eta 3000 euro artekoa bada: ez dute emaitzarik izan zenbait banku erakundetan funtsak enbargatzeko saioek eta Bizkaiko Foru Ogasunak erabakitako zerga itzulketen enbargoak.

3.3. Espediente horien zorraren zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa bada: ez dute emaitza onik izan hainbat banku erakundetan funtsak, ibilgailuak edo ondasun higiezinak enbargatzeko jarduerak.

4.- Artikulu honetan aipatzen den zenbatekoa zehazteko, zergadun batek ordaintzeke dituen zor guztiak zenbatuko dira, betearazpen aldiaren ordaintzeko epea mugaeguneratua dutenak, eta, beraz, enbargatu daitezkeenak. Zor horien zenbateko nagusiak hartuko dira kontuan.

Artikulu honen 2. atalean aipatzen den zenbatekoa zehazteko, ordaintzera behartuta dagoen pertsona baten zirkulazio isunez bestelako kontzeptuengatik zor guztiak zenbatuko dira, baldin eta ordaintzeke badaude eta enbargarriak badira.

46. artikulua. Baja espediente sinplifikatuak

Alkateak baja sinplifikatuen espedienteak onartu ahal izango ditu honako kasu hauetan, kasu bakoitzerako adierazten diren prozeduren arabera:

- a) Funtsezko datuak (abizenak eta izenak, NAN/IFK edo helbidea) ez dituzten zorrak, haiek lokalizatu eta zehazteko, bai eta zor horiekin lotutako zordunak identifikatzeko ere.
- b) Ofizios ezeztatu eta baja eman ahal izango zaie betearazpen aldiaren dauden zorrei, haien zenbateko nagusia 10,00 eurotik beherakoa bada, baldin eta ordaintzera behartuta dagoenak betearazpen aldiaren beste zorrik ez badu.
- c) Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Udal Zergaren ordainagiriak ezeztatu ahal izango dira, matrikulazioan 10 urtetik gorako antzintasuna duten ibilgailuei dagozkienak, baldin eta Zerga Bilketa Betearazleak haien kobrantza kudeatu badu eta emaitza negatiboa izan bada, eta Trafikoko datu basean ibilgailuaren gaineko enbargoa badago, edo azken 4 urteetan ez badago kontrataturiko nahitaezko aseguruurik, ezta Ibilgailuen Azterketa Teknikoa ere. Ibilgailu horiei dagokienez, Ibilgailuak Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Atalari jakinaraziko zaio, Udaltzaingoari eska diezaion Trafikoan baja emateko izapideak egin ditzan.
- d) Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Itzulketa kontzeptuagatik likidazioak baliogabetu ahal izango dira, baldin eta enbargo prozedura hasita, interesdunak egiaztatzen badu bere egungo egoerak gizarte larrialdikoa izaten jarraitzen duela eta ez dituela jasotzen lanbide arteko gutxieneko soldata baino diru sarrera handiagoak.
- e) Konkurtso prozeduran dauden zorrak ofizios baliogabetu ahal izango dira eta kontuetan baja eman ahal izango zaie, porrotaren edo hartzekodunen konkurtsoaren deklarazioak 10 urtetik gorako antzintasuna badu eta konkurtso administratzaileak likidatu ez badu. Konkurtso likidazioaren ondorioz a posteriori zenbatekoaren bat jasotzen bada, kobratu gabeko kredituak birgaitu egingo dira jasotako zenbatekoan.

IV. KAPITULUA. PREMIAMENDUZKO PROZEDURA

47. artikulua. Araubidea

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Diru bilketako Erregelamenduan ezarritakoaren arabera bideratuko dira premiamenduzko prozedura eta enbargoa.

48. artikulua. Premiamenduzko prozedura

- 1.- Zergapekoari premiamenduzko probidentzia jakinarazten zaionean abiaraziko da premiamenduzko prozedura. Probidentzia horretan, ordaintzeke dagoen zorra identifikatuko da, kasu bakoitzean dagozkion errekarguak eta interesak barne, eta ordainketa egiteko eskatuko zaio zergapekoari.
- 2.- Udal diruzainak emandako premiamenduzko probidentzia nahikoa izango da premiamenduzko prozedura abian jartzeko, eta epai judizialaren indar betearazle bera izango du zergapekoen ondasun eta eskubideen aurka jarduteko.
- 3.- Premiamenduzko probidentziaren aurka, bakarrik ondoko kontraktasun arrazoiak izango dira onargarriak:
 - a) Zorra guztiz kitatuta egotea edo Zerga Administrazioak ordainketa eskatzeko duen ahal preskribatzea.
 - b) Borondatezko epean atzeratzeko, zatikatzeko edo konpentsatzeko eskaera eta diru bilketako prozedura eteteko beste arrazoi batzuk.
 - c) Kitapena ez jakinaraztea.
 - d) Likidazioa deuseztatzea.
 - e) Premiamenduzko probidentziaren edukian akatsa edo omisioa izatea, zorduna edo premiamendupeko zorra identifikatzea eragozten duena.
4. Ordaintzeko betebeharra duenak ez badu ordainketa egiten premiamendu-probidentzia jakinarazi eta hilabeteko epean, bere ondasunak enbargatuko dira, eta probidentzia horretan ohartaraziko da hori.
- 5.- Bahitura prozedura bakar bat bideratzeko, premiamenduzko prozeduran sartuta dagoen zordun beraren zor guztiak metatuko dira. Halere, prozeduraren beharrek hala eskatzen dutenean, bereizi ahal izango dira metatutako zorrak.

49. artikulua. Bahituraren praktika

- 1.- Bahitura jarduketa bakoitza Diru bilketa Ataleko buruak proposatuta Udal diruzainak egindako eginbidean dokumentatuko da, eta jarduketa horren ardura duen pertsonari jakinaraziko zaio. Bahitura egin ondoren, zordunari jakinaraziko zaio eta, hala badagokio, ondasunen hirugarren titularrari, edukitzaileari edo gordailuzainari, horiekin jarduketak egin ez badira, bai eta zordunaren ezkontideari ere, bahitutako ondasunak irabazizko jardunetatik etorriak direnean, eta ondasun horien jabekideei edo titularkideei.
- 2.- Bahitutako ondasunak Erregistro Publiko batean inskriba badaitezke, Udal Administrazioak eskubidea izango du dagokion Erregistroan bahituraren prebentziozko idatzoharra egiteko, Udal diruzainak emandako aginduarekin bat etorriz.
- 3.- Enkantearen, lehiaketaren edo zuzeneko esleipenaren bidez besterenduko dira bahitutako ondasunak.
- 4.- Ondasunak esleitu aurreko edozein unetan askatu ahal izango dira bahitutako ondasunak, baldin eta zerga zorra, errekargua, kostuak eta prozeduran zehar sortutako interesak ordaintzen badira.

V. KAPITULUA. ERREKURRITUTAKO EGINTZAREN BETEARAZPENA ETETEA

50 artikulua. Etetea.

1. Ordaintzera behartuta dagoenak eskubidea du, dagokion errekurtsioa edo erreklamazioa jartzen denean, aurkaratutako egintzaren betearazpena eteteko, baldin eta indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen bermeak ematen baditu.
Bermeak honako hauek estali beharko ditu: aurkaratutako egintzaren zenbatekoa, eteteak sortzen dituen berandutze-interesak eta bermea betearazten bada bidezkoak izan daitezkeen errekarguak. Denbora mugarik gabe aurkeztuko da aurreko lerroaldean aipatutako bermea.

Errekurtsoak edo erreklamazioak bere bidea egiten ari den edozein unetan eskatu ahal izango da prozedura eteteko, baina errekurtsua jartzen den unean eskatzen ez bada, soilik gerora sor litezkeen prozedurazko jarduketetan eragin ahal izango du prozedura eteteko eskaerak.

Helegiteak edo aurkaratzeak zerga zehapen bati eragiten badio, betearazpena eten egingo da automatikoki, bermerik aurkeztu beharrik gabe, harik eta zehapena administrazio bidean irmoa izan arte.

2. Aurreko lerroaldean adierazitako etete automatikoa lortzeko behar diren bermeak Udal Diruzaintzan gordeko dira, eta soilik hauexek izango dira:
 - a) Dirua edo balore publikoak
 - b) Kreditu entitate batek emandako abal edo fidantza solidarioa.
3. Interesdunak ezin baditu prozedura etetea lortzeko beharrezkoak diren bermeak aurkeztu, etete hori erabaki ahal izango da alde aurretik organo eskudunak nahikotzat dituen beste berme batzuk aurkeztuta. Bestalde, organo eskudunak eteteari buruzko ebazpena aldatu ahal izango du prozedura eragin zuten baldintzak aldatu egin direla ulertzen badu, jarritako bermeek balioa edo eraginkortasuna galtzen badute, edo eteteari buruzko ebazpena ematean ezagutzen ez ziren beste ondasun edo eskubide batzuk, berme gisa eman zitezkeenak, badirela jakiten badu.
4. Aurreko idatz zatiak alde batera utzi gabe, prozedura etetea erabaki ahal izango da, inolako bermerik aurkeztu gabe, honako kasu hauetan:
 - a) Akats aritmetikoa, materiala edo egitatezkoa egin duela hautematen denean.
 - b) Errekurtsogileak alegatzen eta justifikatzen duenean, ebazteko eskumena duen organoaren iritziz, ezinezkoa dela berme hori jartzea edo prozedura egikaritzeak kalte konpongaitzak edo konponezinak eragin ditzakeela.
5. Administrazio bidean gertatutako etenaldiak bere horretan jarraituko du, baldin eta interesdunak, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkezteko epean, administrazioari jakinarazten badio errekurtsu hori sustatu duela eta prozedura etetea eskatu duela. Etenaldi horrek bere horretan jarraituko du, baldin eta administrazio bidean jarritako bermeak bere indarraldia eta eraginkortasuna kontserbatzen baditu, harik eta organo judizialak eskatutako etenaldiari buruz dagokion erabakia hartu arte.

Zehapenen kasuan, etenaldiak bere horretan jarraituko du, aurreko lerroaldean aurreikusitako moduan eta bermerik eman beharrik gabe, erabaki judiziala hartu arte.
6. Erreklamazioaren edo errekurtsuaren ebazpenaren ondorioz aurkaratutako egintzatik eratorritako zenbatekoa osorik edo zati batean ordaindu behar denean, berandutze interesak likidatuko dira 26. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 219. artikulua 3. lerroaldean aurreikusitakoari kalterik egin gabe.
7. Administrazioak, zenbatekoa egiaztatu ondoren, zor baten betearazpena eteteko Administrazioaren kontura jarritako bermeen kostua itzuliko du, administrazio epai edo ebazpen batek zor hori bidegabetzat jo eta adierazpen hori irmo bihurtu bezain laster. Zorra partzialki bidegabetzat jotzen bada, itzuli egingo da aipatutako bermeen kostuari dagokion zatia.

51. artikulua. Bermeen kostua itzultzea

1. Egintza bat eteteko jarritako bermeen kostuak itzultzean, aintzat hartuko dira bermea itzuli arte egintza formalizatzeko, mantentzeko eta eteteko sortutako gastuak.
2. Bermeen kostuak itzulita, sortzen den aldian indarrean dagoen berandutze interesa ordainduko du Zerga Administrazioak; berandutze interesa kostu horiek ordaindu direla behar bezala egiaztatzen den egunetik interesdunari dirua itzultzeko eskubidea onartzeko erabakia hartu arte sortuko da.

52. artikulua. Bermeen kostua itzultzeko prozedura.

1. Alkatea izango da, Udal Diruzainak proposatuta, bermeen kostuaren itzultzea tramitzeko eta erabakitzeko organo eskuduna.
2. Interesdunaren eskaeraren bidez abiaraziko da prozedura, eta dokumentu hauek erantsiko dizkio eskaera orriari:
 - a) Etendako administrazio egintza edo zorra guztiz edo partzialki bidegabetzat jotzen duen administrazio ebazpenaren edo epai judizialaren kopia.

- b) Bermeen kostuaren zenbatekoaren egiaztagiria, eta ordainketa egindako dataren adierazpena.
 - c) Itzulketa egiteko aukeratutako bitartekoaren berariazko adierazpena: banku transferentziaren (titularra den kontu zenbakia adierazita) edo konpentsazioaren artean aukeratu ahal izango da.
3. Zerga Administrazioak behar diren jarduerak egingo ditu eskatutako diru itzulketa bidezkoa den egiaztatzeko, eta, horiek amaitutakoan eta ebazpen proposamena idatzi aurretik, entzunaldia emango zaio interesdunari. Izapide hori alde batera utzi ahal izango da prozeduran agertzen ez bada eta aintzat hartzen ez bada beste egintza edo alegaziorik, soilik interesdunak aurkeztutakoak azaltzen eta aintzat hartzen badira.
 4. Organo eskudunak ebazpena emango du, eta ebazpena hori gehienez ere sei hilabeteko epean jakinarazi beharko da, eskaera Erregistro Orokorrean aurkezten den egunetik zenbatzen hasita.
 5. Jakinarazpena egiteko epea igaro eta jakinarazpenik jaso ez bada, interesdunak ulertu ahal izango du bere eskabidea ezetsi egin dela, eta errekurtsua jarri ahal izango du ustezko ebazpenaren aurka.
 6. Bermeen kostua itzultzeko eskubidea aitortzen duen ebazpena eman ondoren, pertsona edo erakunde hartzekodunari dagokiona ordaintzeko agindua emango da.

IV. IKUSKARITZA.

53. artikulua.- Zerga Ikuskaritza Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 FORU ARAUAN eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 21eko 99/2005 FORU DEKRETUAN ezarritakoaren arabera bideratuko da. Alkateak izango du jarduera horietatik eratortzen diren egintzak agintzeko eskumena.

V. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

54. artikulua.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 FORU ARAUAN ezarritakoaren arabera kalifikatuko eta arautuko dira zergen arloko arau hausteak.

Zergen arloko arau hausteei aplikatu beharreko zehapenak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 FORU ARAUAN eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Arloko Zehapen Araudia onartzen duen ekainaren 21eko 99/2005 FORU DEKRETUAN ezarritakoaren arabera bideratuko dira. Alkateak izango du jarduera horietatik eratortzen diren egintzak agintzeko eskumena.

VI. ADMINISTRAZIO BIDEAN DAUDEN EGINTZAK BERRIKUSTEA

55. artikulua.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 FORU ARAUAN eta Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko Foru Arauan ezarritakoaren arabera berrikusiko dira zergen arloan administrazio bidean emandako egintzak.

VII. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO ELKARRERAGINGARRITASUNA

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko eskubidea dute interesdunek. Basauriko Udalaren zerbitzu/sail eskudunak elektronikoki kontsultatu edo bildu ahal izango ditu dokumentu horiek, datuen bitartekotza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez. Arrazoi teknikoak direla eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, izapideak egiteko behar diren dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango zaio interesdunari.

2. Zilegi da datu pertsonalen tratamendua egitea, interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzean edo Basauriko Udalarari emandako botere publikoak gauzatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Datuak minimizatzeko printzipioarekin bat etorritik, datu egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurririk mugatuak bakarrik eskatuko dira, datu horiek tratatzeko helburuen arabera (DBEO, 5.1.c artikulua).

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onartu zen eta 2023ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean, eta indarrean jarraituko du hura aldatzeko edo indargabetzeko erabakia hartzen den arte.

2023/10/26ko osoko bilkuraren erabakiz aldatua